

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

Onestea Lagrango Udalak Arabako Mendialdeko Kuadrillari kudeaketa-esleipena egiteko hitzarmena, toki erakundeetan euskara erabiltzeko eta sustatzeko 2022rako plan berriak baloratu eta sortzeko

Lagrango Udalak, 2022ko abuztuaren 17an egindako osoko bilkuran, onetsi zuen Arabako Mendialdeko Kuadrillarekin administrazio arteko hitzarmen bat formalizatzea, toki erakundeetan euskara erabiltzeko eta sustatzeko 2022rako plan berriak baloratu eta sortzeko kudeaketa-esleipena kuadrillari egiteko.

Bestalde, Arabako Mendialdeko Kuadrillak, Kuadrillako Batzarraren 2022ko urriaren 5eko ez-ohiko bilkuran, onetsi zuen Lagrango Udalarekin administrazio arteko hitzarmen bat formalizatzea, toki erakundeetan euskara erabiltzeko eta sustatzeko 2022rako plan berriak baloratu eta sortzeko kudeaketa-esleipena egiteko.

Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki horren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengo egun baliodunetik aurrera, Administrazio auzietarako jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8, 10 eta 46. artikuluek xedatutakoari jarraiki. Hala ere, hori baino lehenago, eta nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean. Hilabeteko epea izango da horretarako, iragarki hau argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan ezarritakoaren arabera; hala ere, egoki iritziz gero, beste edozein egintza edo errekurtsio abiarazi ahal izango du interesdunak bere eskubideak defendatzeko.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3.b) artikulua xedatutakoaren arabera, ALHAOn argitaratzen da hitzarmen hori, eranskin gisa.

ERANSKINA

Lagrango Udalak Arabako Mendialdeko Kuadrillari kudeaketa-esleipena egiteko hitzarmena, toki erakundeetan euskara erabiltzeko eta sustatzeko 2022rako plan berriak baloratu eta sortzeko

Lagran, 2022ko urriaren 5a.

BILDU DIRA

Alde batetik, José María Martínez Fernández, Lagrango Udaleko alkatea eta hitzarmen hau sinatzeko ahala duena, Udalbatzaren 2022ko abuztuaren 17ko erabakia dela medio.

Beste aldetik, Anartz Gorrotxategi Elorriaga, Arabako Mendialdeko Kuadrillako lehendakaria eta hitzarmen hau sinatzeko ahala duena, Kuadrillako Batzarraren 2022ko urriaren 5eko erabakia eta 2019ko irailaren 30eko eratze bilkurako erabakia direla medio.

Alderdiek nahikoa eta beharrezko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri egintza hau egiteko, eta ondorioz,

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa. Bat etorri Baliabideen banaketarako eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiaren urriaren 7ko 4/2021 Legearekin, Eusko Jaurlaritzak 900.000 euro bideratuko ditu udal eremuan euskara sustatzeko eta plangintza egiteko baliabide gisa, eta zenbateko horretatik 145.440 euro Arabako Lurralde Historikoari dagozkie.

Bigarrena. Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 25eko 14/2022 Erabakiaren arabera (erabaki horren bidez, toki erakundeak finantzatzeko foru funtsean hasierako behin-behineko partaidetzak onesten dira, bai eta kuadrillentzako eta udalentzako lehen hiruhileko ordainketak eta kontzejuentzako 2022ko lehen sei hileko ordainketak ere), eta hamaikagarren xedapen gehigarriaren arabera (erabaki horrek funtsa arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Araua aldatzen du), zati osagarriaren zenbatekoari, 8. artikuluan jasotako arauen arabera kalkulaturik, gehitu egingo zaio euskara sustatzeko eta planifikatzeko udal eremukoko funtsaren zenbatekoa (euskara sustatzera soilik baldintzatutako funtsa), eta udal bakoitzak behar bezala justifikatu beharko du hori, baliabideak banatzeko eta foro aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzko urriaren 7ko 4/2021 Legeak ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena. Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluan xedatzen denez, udalei esleitzen zaie, eskumen propio gisa, esleituta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena. Eskumen horretaz baliatzean, udalerrri bakoitzak dagozkion neurriak hartuko ditu, eta euskararen erabilera normalizatzeko behar diren planak onetsi eta garatuko ditu, autonomia erkidegoko erakunde erkideek euskararen erabilera planifikatzeko eta arautzeko emandako irizpideak eta indarrean dagoen legeria kontuan hartuta. Azaldutakoagatik, Lagrango Udala da aipatutako eskumenaren titularra.

Laugarrena. Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauak, 1. artikuluan, kuadrilla udalerriek osatutako lurralde erakunde foral gisa eratzten du, haren lurralde eremuari eragiten dioten interes orokorreko gaiak sustatu eta kudeatzeko eta gai horietan parte hartzeko helburuaz. Horrek, Kuadrillen Eskumen eta Ahalmenei buruzko Foru Arauaren 28. artikuluekin batera, Arabako Mendialdeko Kuadrillari aukera ematen dio udalek haren esku jarritako eskumenak bere gain hartzeko.

Bosgarrena. Hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubidearen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan kudeaketa esleipenari buruz aurreikusitakoaren arabera formalizatuko da. Artikulu horretan xedatutakoaren arabera, "Administrazio organoen edo zuzenbide publikoko entitateen eskumeneko jarduera materialak edo teknikoak administrazio bereko edo beste bateko beste organo edo zuzenbide publikoko entitateen esku utz daitezke, jarduera horiek haien eskumenen barruan badaude, efikaziari begira komeni bada, edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago.

Sektore publikoko kontratuen legerian araututako kontratuen berezko prestazioak ez dira izango kudeaketa esleipenen xede. Hori gertatzen bada, horien izaerak eta araubide juridikoak legeria horretan aurreikusita dagoena bete beharko du."

Seigarrena. Bestalde, Lagrango Udalaren eta Arabako Mendialdeko Kuadrillaren arteko lankidetzak kudeaketa esleipenaren formularen bidezkoa izateak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean du oinarri juridikoa. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Zehazki, lege horren 31.1 artikulua aukera ematen du sektore publikoko erakundearen arteko lankidetzarako, baina lankidetzak hori ezin da kontratuzkotzat jo, eta hainbat modalitate erabili daitezke, hala nola lankidetzak horizontala, dagozkion hitzarmenak egin ondoren, lege horren 6. artikuluan 1. apartatuan ezarritako baldintzetan eta mugekin.

KLAUSULAK

Lehenengoa. Xedea

Lagrango Udalak Arabako Mendialdeko Kuadrillari kudeaketa esleipena egiteko hitzarmen honen xedea da jarduerak egitea euskararen erabilera planak modu bateratu eta koordinatuan ebaluatzeko, ahal den neurrian metodologia, hausnarketa eta jarraitu beharreko prozedura adostuz.

Kudeaketa esleipenerako hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubidearen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan aipatutako arrazoiengatik egiten da, hau da, eraginkortasun arrazoiengatik edo jarduerak egiteko baliabide tekniko egokirik ez dagoelako.

Jasotako zereginak enkargatzeak ez dakar, inola ere, eskumenaren titulartasuna lagatzea, eta Lagrango Udalaren erantzukizuna izango da kudeaketa esleipenaren hitzarmenaren xedea betetzeko behar diren egintza edo ebazpen guztiak ematea.

Bigarrena. Aplikazio eremu subjektiboa eta lurraldekoa

Hitzarmen hau sinatzen duten toki erakundeek kudeaketa esleipen honen eraginpean daude. Hitzarmen honen aplikazio eremua Arabako Mendialdeko Kuadrilla izango da.

Hirugarrena. Kuadrillaren betebeharrak

Kuadrillak konpromisoa hartzen du lehen klausulan adierazitako xedea betetzeko egokitzat jotzen dituen jarduerak egiteko.

Laugarrena. Udalaren betebeharrak

Udalari honako hauek dagozkio:

1. Arabako Mendialdeko Kuadrillari esleipen honen xedera zuzendutako zenbatekoa ordaintzea. Zenbateko hori erantsitako II. eranskinean zehazten da.
2. Egindako lanen garapena hobetzeko proposamenak egitea, aurkeztutako neurriak ezartzean akatsak antzemanetz gero edo emaitza partzialak espero zirenak ez badira.
3. Kuadrillari zerbitzu beraren esleipenak egin dizkioten udalekin koordinatzea, herritarrentzat zerbitzua eraginkorragoa eta osoagoa izan dadin.

Bosgarrena. Aurrekontua eta finantzaketa

Esleipen honen xedea betetzeko jarduerak hitzarmen hau sinatu ondoren hasiko dira, hitzarmena ALHAOn argitaratu ondoren, eta deskribatutako planak egin, eta Lagrango Udaleko arduradunak plan horiek egiaztatu eta baieztatu ondoren ordainduko dira.

Ordainketak banku transferentzia bidez sartuko dira Arabako Mendialdeko Kuadrillak adierazitako kontu korrontean, aurkeztu ondoren, dagokion aurrekontu partidaren kargura.

Seigarrena. Indarraldia

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2022ko abenduaren 31tik aurrera izango ditu ondorioak.

Zazpigarrena. Publizitatea

Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, bat etorri Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3 artikuluan aurreikusitakoarekin.

Zortzigarrena. Iraupena

Kudeaketa esleipena 2022ko abenduaren 31ra arte izatea adostu da, albo batera utzi gabe indargabetzeko aukera, interes orokorreko arrazoiengatik edo, hamabost egun lehenago alderdietako edozeinek salatuta, agiri honetan hurrenez hurren hartutako konpromisoak ez bete-tzeagatik.

Bederatzigarrena. Izaera eta jurisdikzio eskuduna

Kudeaketa esleipen honek administrazio izaera du eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio.

Akordio honen interpretazioari, aldaketei, ondorioei edo ebazpenari buruz alderdien artean sortu litezkeen auziak eta gatazkak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera.

Lagran, 2022ko abenduaren 23a

Alkatea

JOSÉ MARÍA MARTÍNEZ FERNÁNDEZ